

XII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Izan dezagula beti, Jauna,
zure izen santuaren beldurra eta maitasuna:
ez baitituzu behinere zeure eskutik uzten
zeure maitasunean sendo jarri dituzunak.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Za 12, 10-11

Zulatu zutenari begira egongo zaizkio.

Zakarias Profetaren liburutik

Honela dio Jaunak: «Grazia espiritua eta otoitz espiritua isuriko dut Dabiden etxe gainera eta Jerusalemgo bizilagunetara; begiak jasoko dituzte Niregana, zulatu ninduten Honengana. Eta negar egingo dute, seme bakarrarentzat egin ohi den bezala; negar samina egingo dute, lehen semearentzat egin ohi den bezala. Egun hartan negar hots haundia izango da Jerusalemenean, Megido ibarrean Hadad-Rimoni egiten zaiona bezain haundia».

ERANTZUN SALMOA: Sal 62, 2. 3-4. 5-6. 8-9

**R/. Zure egarriz daukat gogoa,
Jauna, ene Jainkoa.**

Jainko, nire Jainko zaitut,
goizetik bilatzen zaitut,
zure egarriz daukat gogoa, zure irrikaz haragia,
lur idor, egarri, urgabe irudia. R/.

Egona nauzu Zuri begira jauretxean,
zure ospea eta indarra ikusi nahian.
Hobe baita bizia baino zure maitasuna,
ezpainok egingo dute zure goralpena. R/.

Honela goretsiko zaitut bizi naizen artean,
jasoko ditut eskuok zure izenean.
Gurinez eta mamiz bezala beteko zait gogoa,
ezpain ikaraz goretsiko zaitu nire ahoak. R/.

Zu gertatu baitzara nire laguntzailea,
pozez oihera dagit zure hegalean.
Nire gogoa Zuri itsatsia dago,
zure eskuinak eutsita nago. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 3, 26-29

*Kristorengan bataiatuak zareten guztiok
Kristo duzue soineko.*

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Guztiok Jaungoikoaren seme-alaba zarete, Kristo Jesusengan duzuen sinesmenarengatik.

Izan ere, Kristorengan bataiatuak zareten guztiok Kristo duzue soineko. Ez da orain, ez judutarrik, ez greziarrik; ez menpekorik, ez askaturik; ez gizonezkorik, ez emakumerik; zuek guztiok bat baitzarete Kristo Jesusengan. Eta Kristorenak baldin bazarete, Abrahamen ondorengo zarete eta agintzarien oinordeko.

EBANJELIOA: Lk 9, 18-24

Aleluia: Jn 10, 27

R/. Aleluia.

V/. Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa
–dio Jaunak–;
Nik ezagutzen ditut,
eta haiek ondotik datozkit. R/.

*Zu, Jaungoikoaren Mesias zara...
Beharrezkoa da, Gizonaren Semeak neke haundiak jasatea.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesus bakarrik otoitzean ari zela Hamabien aurrean, honela galdetu zien: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun: «Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste batzuek, Elias; besteek, berriz, aintzinako profetaren bat biztu dela». Hark orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jaungoikoaren Mesias».

Baina Hark inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta esan zien: «Beharrezkoa da, Gizonaren Semeak neke haundiak jasatea; zaharrek eta idazlariek gaitzetsi egingo dute eta hil; baina hirugarren egunean biztuko da».

Eta honela esan zien guztiei: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza egunero bere gurutzera, eta jarrai biezat.

Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia Niregatik galtzen duenak, salbatu egingo du».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, bakezko eta gorespenezko opari hau;
beronek garbi gaitzala bekatuetatik
eta Zuretzat opari atsegingarri egin.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Kristoren gorputz santuaz eta odol baliotsuaz
janaritu gaituzu, Jauna;

zure bihotz onari eskatzen diogu,
Mezan ospatzen duguna, betiko salbamen izan dakigula.
Jesu Kristo.